

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

47/2026 Foru Agindua, otsailaren 12koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatzeke eta egiteko laguntzen 2026ko deialdiari

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 40/2021 Foru Dekretuaren bidez, onspena eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntza lerroaren oinarri arautzaileei.

Dekretu horren 5. artikuluan xedatzen da urtero onetsiko dela laguntza deialdia, zeinean eskaerak aurkezteko epea jasoko baita, bai eta deialdia ebazteko gordetzen den kreditua eta diruz lagun daitezkeen azokak egiteko aldia ere.

Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako gastuen aurrekontuan badago kreditua laguntza horien 2026rako deialdia onesteko.

Tokiko azokak eta merkatuak funtsezko tresna dira merkaturatze zirkuitu laburrak berraktibatzeke eta finkatzeko, bai eta tokiko eta gertuko produktuak ezagutarazteke eta balioesteko ere. Era berean, gure nekazariak eta abeltzainek garatutako jarduera ikusarazten laguntzen dute, ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko zuzeneko harremana erraztuz, landa ingurunea dinamizatuz eta Arabako Lurralde Historikoko lehen sektorea sustatuz. Horregatik, funtsezkoa da haiek laguntzea.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta bat etorritik Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, zeinak aldatzen duen 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretua, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntzen 2026ko deialdia, bat etorritik nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntza lerroaren oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 40/2021 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitziren. Hona hemen xehetasunak:

– 20 egun baliodun, dagokion foru agindua ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskabidea inprimaki normalizatuan egin beharko da, eta Nekazaritza Sailaren webgunean eskuratu ahal izango da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek egoitza elektronikoaren berariazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/abeltzaintza-eta-nekazaritza-azokak-antolatzeke-laguntzak>) telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako; administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak; eta administrazio publikoetako enplegatuek, enplegatu publiko izateagatik administrazio horiekin egiten dituzten izapide eta jarduketetarako, administrazio bakoitzak arau bidez zehazten duen moduan.

– Kreditu-erreserba: Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldiko aurrekontuko partida hauen kargura, adierazitako zenbatekoetan:

- “40100. G/419400/46290400 Udalen eta Toki Erak. nekazari-abeltzain azokak»: 20.000,00 euro.
- “40100. G/419400/48100421 Ekoizleen azokak”: 5.000,00 euro.

Aurreko taldeetako bakoitzari dagozkion dirulaguntzak zehaztu eta gero, kreditua bi partiden artean banatu ahal izango da, baina deialdiaren kreditu orokorrean eragin gabe. Horretarako, dagokion aurrekontu aldaketa egin beharko da.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, deialdi osorako hasiera batean gordetako zenbatekoa adina izango dira.

– 2025. urtean egindako azokek parte hartu ahal izango dute deialdi honetan (2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra), eta, beraz, eskaera eta agiri osagarriak benetan izandako inguruabarrei eta gastuei buruzkoak izan beharko dira. Laguntzak esleitu eta berehala egingo da ordainketa, eta ezinbesteko baldintza izango da oinarri arautzaileetan adierazitako agiri guztiak aurkeztu izana.

Bigarrena. Deialdi hau ebazteko, behar beste ebazpen emango dira, eta, ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko dira.

Hirugarrena. Emandako laguntzak ordaintzeko, horien onuradun diren erakunde eskatzaileek, abuztuaren 3ko 40/2021 Foru Dekretuaren 6. artikuluan eskatutako dokumentazioaz gain, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, sailaren webgunean horretarako eskuragarri egongo den inprimaki normalizatuan. Adierazpen horretan adierazi beharko dute espedienteari telematikoki gehitzen zaizkion fitxategiak jatorrizkoen irudi fidela direla, jatorrizko fitxategiak erakunde eskatzailearen esku daudela eta, hala eskatzen zaionean, Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituela.

Laugarrena. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2026ko ekitaldirako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa (edo haren kontrabalioa atzerriko dirutan) edo hortik gorakoa.

Ondasun ematea edo zerbitzu egitea zatikatu baldin bada, adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, batu egingo dira eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

Bosgarrena. Administrazio bidea amaiera ematen dion foru agindu honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Seigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 12a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA